

Arratia

"Bidean Gagoz"

12. zk.

2 0 0 8 a p i r i l a

TOKIKO AGENDA 21aren gaineko informazio aldizkaria



Arratia



www.arratia21.org

Ikusi web berria eta parte hartu!

Badakizu ARRATIA 21 tokiko Agenda 21 garatzen ari diren Arratiako herri talde batek osatzen duela eta elkarlanean ari direla herri jasangarriagoak lortzeko bidean. Euren lehentasunetako bat, besteak beste, herritarrei lana nola egiten duten, lortzen dituzten aurrerapen eta eskaintzen dituzten zerbitzuen berri ematea da. Horretarako, hain zuzen ere, tresna berria jarri dute martxan: www.arratia21.org web orria. Web orri honetan Arratiako Tokiko Agenda 21 ezberdinen inguruko informazio osoa aurkitu dezakezu: herri bakoitzeko ingurumen diagnostikoak eta

sozioekonomikoak, beraien Tokiko Ekintza Planak, prozesuaren gaineko dokumentu jakingarriak... Baita ESKOLA AGENDA 21 proiektuaren barnean hainbat eskoletan garatutako esperientziak ezagutu ere: beraien lanak, konpromisoak, argazkiak... FORUAN zure iritzia eman dezakezu nahi duzun gaietan, INKESTETAN parte hartu, ARGAZKI BILDUMAN argazkiak zintzilikatu, ON LINE BULETINA jaso, ARRATIA 21 "Bidean gagoz" aldizkariaren aleak ikusi... Hau guztia eta gehiago, ez ezazu galdu, ikusi web berria, eta batez ere, parte hartu!

KONPARTITU KOTXEA WEB-AREN BITARTEZ

www.Arratia21.org. web orriak eskaintzen duen

bestelako zerbitzu interesgarria kotxea konpartitzearena da. Proiektu hau Arratiako herritarren artean kotxearen arrazoizko erabilera bultzatzeko

sortu da. Zerbitzua bidaia bat egiteko auto pribatua konpartitzea nahi duten lagunak elkartzen datza.

HELBURUAK

- Arratia 21eko herritarrei mugitzeko aukera berria eskaintzea mugikortasun jasangarria konpartitzea.
- Auto pribatuek sortzen duten kutsadura eta energia kontsumoa gutxitzea.
- Gune publikoaren erabilera hobetzea.

NOLA ERABILI ZERBITZUA?

- LANERA JOATEKO: Inguruko lantokietara joaten bazara eta egunero ibilbide bera egiten baduzu zure autoarekin eta ibilbidea egiteko lagunak bilatzen ari bazara, lanera joateko kotxea konpartitu dezakezu.
- UNIBERTSITATERA JOATEKO: Unibertsitatean lan egin edota ikasten baduzu eta edozein unibertsitate-ra joateko lagunak bilatzen ari bazara, unibertsitate-ra joateko kotxea konpartitu dezakezu.

- BIDAIK EGITEKO: Noizbehinkako bidaiak egiten badituzu, beste herri batzuetara edota atzerrira, hemen bidaiaren gastuak konpartitzeko lagunak aurkitu ditzakezu.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

Zerbitzu honen bitartez zure bidaia edota antzekoa egiten duten pertsonen izenak ikusiko dituzu. E-postaren bitartez jar zaitezke harremanetan pertsona horiekin. Euren lehentasunak zein diren jakingo duzu, autoa duten ala ez, bidaiaren zergatia zein den... eta ibilbide lagunak elkartzea errazteko beste hainbat datu ere bai. Mezu elektronikoa utzi dezakezu autoa konpartitzeko egokiak iruditzen zaizkizun pertsonel. Hau guztia bat-batean eta bitartekorik gabe egiten da gainera.



Arratiako abeltzaintzak ingurumena errespetatzen du

ARRATIA 21 "Bidean Gagoz" aldizkariaren abendu-ko zenbakian, erdiko orrialdeetan berotegi efektuko gasak murrizteko aholku batzuk ematen ziren, eta berotegi gasak murrizteko lehen ekintza gisa, okela gutxiago jatea gomendatzen zen, behien digestioak metano asko isurtzen duelako airera. Hain zuzen

ere, metanoaren berotegi efektua karbono dioxidoaren hogeita bider adinekoa da eta egoera honek justifikatu omen du ekarpen hau egitea. Hau dela eta nekazal mundutik jasotako aholkuak kontutan harturik, hona hemen ARRATIA 21 aldizkariaren arduradunaren ohar argigarria:

Okelari buruzko aholkua ez da guztiz egokia izan. Gauzak hain sinpleak ez dira, karbono dioxidoaren iturriak ere anitzak dira, gai organikoaren deskonposaketatik hasita eta erregai fosilen konbustiotik pasata. Behiek bezala, gainontzeko animaliek eta pertsonok ere igortzen ditugu gas horiek (ze erremedio!). Animaliek, behiek barne, euren funtzioa dute, kasu honetan pertsonak elikatzea.



Ingurumenaren alde egiteko eta kalitateko produktua kontsumitzeko Arratiako baserrietako okela Arratian jatera dei egiteaz batera, tokian tokiko produktuak erostea gomendatzen da.

ABELTZAINZAK BEROTEGI EFETUARI AURRE EGITEN DIO

Arratiako eskualdean praktikatzen den abeltzaintzak berotegi efektuari aurre egiten laguntzen dio, ingurumenarekiko errespetuan eta

beronen kudeaketa zuzen batean oinarritutako abeltzaintza baita. Bertan ekoiztu eta bertan kontsumitutako haragiak ez du berotegi efektua bultzatzen, gutxitu baizik. Eta horrez gain kalitateko elikagaiak ekoizten dira. Are gehiago, abeltzaintzari esker, basoetako eremu zabalak landa eremuz tartekatzen dira eta naturak bioaniztasun handiagoa du. Beraz, argi dago Arratiako okela jenez gero, kalitateko elikagai seguru bat kontsumitzeaz gain ingurumenean eragin positiboak baino ez dugula eragingo. Arratiako baserrietako okela Arratiako harategietan erosi eta Arratian jatera dei egiteaz batera, tokian tokiko produktuak erostea gomendatzen da.

Martxoaren 22an, URAREN MUNDUKO EGUNA

Munduko uraren %2,8 baino ez da geza. Etzazu alferrik galdu!

Nazio Batuen Asanblea Orokorrak, urtero martxoaren 22a, uraren mundu eguna izendatu zuen, Agenda 21eko Ingurumen eta Garapenari buruzko Nazioarteko konferentziaren gomendioen arabera.

Egun esanguratsu honetan Lurrean bizitzak jarraitu ahal izateko beharrezkoa den balibabide natural honi merezi duen garrantzia eman zaio, eta bide batez, gizarteari gaur egungo egoerari buruz jakinarazi, uraren urritasunaren eta honen kutsaduraren gorakada, gaur egun gure gizartearen erronketako bat delako. Hau gelditzeko neurririk hartu ezean egoera larriago baterantz zuzenduko gara etorkizunean.


URAREN ERABILERA JASANGARRIA

Pertsona bakoitzaren ur kontsumoaren gorakada dela-eta, ur gezaren eskaria neurri gabe igotzen ari da. Aldiz, ur gezaren biltegiak mugatuak dira eta kutsaduraren mehatxupean daude. MUNDUKO URAREN %2,8 BAINO EZ DA GEZA. ETZAZU ALFERRIK GALDU!

Ingurumenari egindako kalteaz gain, herrialdeen ezberdintasun soziala txikitzeko, uraren erabilpen hobea eta eraginkorragoa egitea gure eskutetan dago.

Pertsona bakoitzaren ur kontsumoaren gorakada dela-eta, ur gezaren eskaria neurri gabe igotzen ari da. Aldiz, ur gezaren biltegiak mugatuak dira eta kutsaduraren mehatxupean daude.

URA AURREZTEKO AHOLKUAK



Harrikoa egiterakoan, hortzak garbitzerakoan edo bizarra kentzerakoan ez eduki txorrotara ura dariola.

Hobe da dutzatzea bainatzea baino.

Jar itzazu txorrotetan ura aurrezteko difusoreak eta mekanismoak.



Erabat bete itzazu garbigailua eta ontzi-garbigailua, martxan jarri aurretik.



Ureztza itzazu landareak iluntzean, ebanporazio galerak ez edukitzeko, zure landareek eskertuko dizute!

Arratian tranbia, bidegorria eta ordeko beste garraiobide batzuk jartzea aztertzen ari gara

AURRENEKO PAUSUAK: TOKIKO EKINTZAK ETA ESTRATEGIA BATERATUA

2004aren bukaera eta 2005aren hasiera bitartean Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeanurik Tokiko Agenda 21 programaren barnean iraunkortasunerako Tokiko Ekintza planak onartu zituzten. "Arratiako Udaltalde 21eko herrien Mugikortasun Iraunkorrerako Planak" izeneko dokumentua ere onartu zen, eta bertan, Arratiako mugikortasunaren ezaugarri garrantzitsuenak ezagutarazten eta herri mailan har zitezkeen ekintza motak adierazten ziren.

Hala, onartutako Ekintza Planetako lerro estrategikoen artean "Mugikortasun iraunkorragoa sustatu" lerroa sartu zen gai honen inguruan herri bakoitzean garatzeko ekintza nagusiak jasotzeko. Ondorioz, herriak ekintza horiek martxan jartzen ari dira.

2006ko irailean berriz, "Arratiako mugikortasunaren gogoeta estrategikoaren II. Jardunaldia"n ondorioztatu zen herri ezberdinek aurrera eramaten dituzten ekintzak garrantzitsuak eta beharrezkoak direla baina mugikortasun iraunkorrago baten bidean ezinbestekoa dela Arratiako herri guztien arteko estrategia bateratu bat zehaztea.



ETORKIZUNA: 3 PROIEKTU ESKUALDE MAILAN

Gauzak horrela, Arratiako Udalen Mankomunitateak aurrean hiru proiektu garrantzitsu izango ditu eskuartean hurrengo urteetan eskualde mailako mugikortasun sistema iraunkorra-koak diseinatu ahal izateko.

1. Arratiako garraiobide sistema berrien ezarpenaren azterketa

"Arratiako garraiobide sistema berrien ezarpenaren azterketa" Arratiako Mugikortasun Iraunkorreko Ekintza Plana egingo du eta honoko helburu orokor hauek beteko ditu:

- Arratiako eskualdearen mugikortasun errealtate ezagutu (lurraren erabilera, jarduerak, garraiobideak, ezaugarri sozioekonomikoak, ingurumen ezaugarriak, e.a.)
- Gai garrantzitsuen gaineko diagnostiko tekniko egin.
- Aztertutako alorretan prebentzio-neurriak eta zuzenketa-neurriak dituen Ekintza Plana proposatu. Bereziki garraiobide publikoari dagokionez.
- Ekonomikoki zenbatetsia dagoen jarduera egitasmoa gauzatu.
- Arratiako Udalen Mankomunitateak eta barneko herriek antolatzen dituzten eztabaida, aurkezpen eta bilkuretara bertaratu eta horietan parte hartu.
- Gaiarekin lotutako erakunde eta entitateekin kontsultatu eta negoziatu.

2. Arratiako eskualdearen mugikortasunari erantzuteko tranbia sistema baten ezarpenaren bideragarritasun azterketa

"Arratiako eskualdearen mugikortasunari erantzuteko tranbia sistema baten ezarpenaren bideragarritasun azterketa"ren helburua da Arratiako garraiobide publikoaren hutsunea konpontzeko Arratiako eskualdea egituratu dezaketen trenbidearen, metro arinaren edota tranbiaren irtenbideak aztertzea.

Garraiobide mota honen ekonomi, gizarte eta ingurumen bideragarritasuna aztertzea da egitekoa. Besteak beste, eskaeraren azterketa, ibilbidea, geltokiak, zerbitzuaren ustiatzea, finantziarioa, tokiko biztanleen iritzien gaineko inkesta, kanpoko kostuen analisia, gizarte abantailak, energia eta isurpenen aurrezpena, ingurumen eragina, e.a.

3. Arratiako bidegorria egiteko proiektua

"Arratiako bidegorriaren eraikuntza proiektua"arekin Bedia eta Zeanuri bitartean eta Dimarekin lotutako bidegorriaren ibilbidea, eraikuntza, kosteak, e.a. zehaztu nahi dira etorkizun hurbilean egiteko. Bidegorri honi beste herrietako bidegorri sareak lotu ahal izango zaizkio herri barneko eta herri arteko bizikleta mugimenduak errazteko.

Jarduera honek gune hau asialdirako, kiroleko eta ingurumen interpretaziorako (pasealeku, oigeta leku eta bizikletaz egiteko ibilbide) moldatzea du helburu eta bide batez eskualdea egituratzea nahi du bizikletaz komunikatzeko modua izan dezan.

Arratiako Tokiko Agenda 21 emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde lanean

Areatza, Bedia eta Igorreko udalerriak beraien Tokiko Agenda 21etan generoaren ikuspuntua txertatzeko proiektu pilotoa garatzen ari dira.



Areatzako Udala



Igorreko Udala



Bediako Udala



Areatzak egina du berdintasun diagnosi eta plana, Bediaki diagnosia osatu du eta laister bukatuko du bere berdintasun plana, eta Igorrek berriz, aurten bukatu nahi du diagnosia gero berdintasun plana egin ahal izateko. Hiru udalerrri hauek Udalsarea 21eko Genero ikuspuntuaren gaineko Ekitalde 21en parte hartzen dute Tokiko Agenda 21etan generoaren ikuspuntua txertatzeko. Ekitalden sortzen diren proposamenekin, diagnosien emaitzekin eta Berdintasun planekin herrietako ekintza planak egokitzen ari gara eta udal kudeaketa iraunkorrago eta justuagoa lortzeko bidean gaude.

Hiru herrietan aurreneko pausua bakoitzak bere Ekintza plana berrikusi eta sexista ez den hizkuntza erabiltzea izan da. Era berean, ekintza plan horietan emakume eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako ekintza berriak sartu dira.

► Berdintasunerako proposamenak Areatzan

Areatzak Berdintasunaren Plana onartuta duenez aurrerago joan da. Areatzako Berdintasunaren Foruak Agenda 21eko Ekintza Plana berrikusi eta hainbat proposamen aurkeztu ditu, besteak beste aipagarriak dira:

- Igorreko anbulategian osasun zerbitzu guztien berri eman kanpoan kokatutako behin betiko kartel batean: matrona, pediatria, ordutegia...
- Emakumeek kirol, kultura, heziketa eta aisialdi ekintzak garatu ahal izateko guñe eta bitarteko gehiago eskaini.

- Dauden zerbitzu eta baliabideen artean familiaren kontziliazioa eta ko-erantzukizuna errazten duten zerbitzu eta baliabideak kontuan hartu.
- Garraio bide publikoaren diseinuan erabiltzaileen eta bereziki emakumezkoen beharrak aintzat hartu.
- Berdintasuneko Foruak Areatzako Ekintza Plana urtero berrikusi generoaren ikuspuntua barneratzeko.
- Hiri planeamenduan emakume taldeen parte hartzea sustatu.
- Lurraldea eta hiri planeamenduaren inguruko lantegiak prestatu emakume taldeekin hutsuneak aurkitu eta konponbideak aurkezteko.

► Bi ekintza eginak

Proposamen hauen ondorioz Berdintasunaren Foruak bi ekintza

interesgarri bideratu ditu dagoeneko:

Aurrenekoa, Areatzako Mapa Sinbolikoa egiteko hainbat lantegi antolatzea izan zen, bertan emakumeen izena duten herriko kale, enparantza, monumentu, e.a aztertu ziren, beraien kokapena (garrantzitsua/ erdigunekoak) ikusi eta gizonen izena edota beste-lako izena daramatenekin alderatu ziren. Hau guztia mapa baten islatu zen herriaren errealitatea bistaratzeko.

Bestea, Gudarien Plazaren diseinu aldaketa izan zen. Bertan hobekuntzak egin dira mugikortasun aldetik eta gizarte sektore ezberdinentzako espazio publikoaren gehikuntzaren aldetik. Horretarako mugikortasunean eta paisajearen adituak diren lagunen laguntza behar izan zen.

AREATZAKO MAPA SINBOLIKOA



- Izen toponimikoak dituzten kaleak/plazak/parkeak
- Gizonen oroimenez izendatutako kaleak/plazak/parkeak
- Emakumeen oroimenez izendatutako kaleak/plazak/parkeak
- Emakumeen oroimenez izendatutako monumentuak/eraikuntzak
- Gizonen oroimenez izendatutako monumentuak/eraikuntzak
- Bestelako izenak dituzten monumentuak/eraikuntzak